

AHOZKO ULERMENA (1)

Erantzun entzundako testuari buruzko galdera hauek:

1 Txinatarrek, agurtzeko, gorputza apur bat makurtu, eta...

- a) ... bi musu ematen dizkiote elkarri.
- b) ... erreberentzia txiki bat egiten dute.
- c) ... elkar besarkatzen dute.

2 Zer egiten dute txinatarrek opari bat jasotzean?

- a) Bi eskuak luzatu.
- b) Eskuineko eskua luzatu.
- c) Begiak itxi eta eskuak luzatu.

3 Zer da heziketa txarrekoa txinatarrentzat?

- a) Oparia gustukoa ez dela esatea.
- b) Urtebetetze-egunean oparirik ez egitea.
- c) Opariak inoren aurrean irekitzea.

4 Aukeratu txinatarren jateko ohiturei buruz gezurra dioten esaldiak.

- a) Txinatarrek egurrezko zotzekin jaten dute.
- b) Zopak jateko, zeramikazko koilarak soilik erabiltzen dituzte.
- c) Jateko, platerera hurbildu behar da.
- d) Jan ondoren, zotzak mahai-oihalaren gainean utzi behar dira.
- e) Plater gainean ere utz daitezke zotzak.

5 Zer esaten da teari buruz testuan? Aukeratu.

- a) Te beltza bakarrik edaten dutela Txinan.
- b) Txinako edari nazionala dela.
- c) Japoniatik Txinara eraman zutela.
- d) Txinatik mundu osora hedatu zela.

6 Zein da testuaren irakaspena?

- a) Txinatarren eta euskaldunon ohiturak oso desberdinak dira.
- b) Euskaldunon ohiturak txinatarrenak baino hobeak dira.
- c) Kultura guztietako ohiturak errespetatu behar dira.